

EGUNEKO ZENTROAREN FUNTZIONAMENDU ARAUTEGIA

1. Kontzeptua eta fundamentazioa.

Familia eta Bizikidetzaren programaren helburua krisialdian, autonomia galtzean edo gatazka edo ezegokitze sozialean desegituratze pertsonal eta/edo familiarra aurrikusi eta tratatzea da, familiari laguntzeko baliabideak edota problematika dibertsoei bizikidetzako alternatiba egokiak kudeatu, sortu edo bultzatuz.

Bestalde, behar eta eskaera sozialei eman behar zaien erantzunak hiritarren ahalik eta gertuen jarri behar dira beren komunitatean bertan, eta giro honetan burutu behar da interbentzio-politika ohiko medioaz desbinkulatzea suposatuko ez lukeen baliabideetan oinarriturik. Honela bada, Egunez Egoitza-Zentruetan Egoteak beharrezko integrazio familiar eta soziala bideratzen duen baliabidea suposatzen du.

Egunezko Estantzien zerbitzuak egunean zehar arta integrala eskaintzen die karentzia psikofisikoak eta sozialak dituzten adineko pertsonen, familiaren inguruan bizi diren bitartean ahalik eta autonomia pertsonal handiena goza dezaten.

Ezin da Zaharretxe eta Klubekin nahastu, hauen helburua iharduera sozio-kultural eta jolasekoekin bizikidetzat bultzatzea baita. «Egunezko Estantziak» zerbitzua nolabaiteko dependentsia psikofisiko edo soziala eta hauen familiei dago zuzendua, erabiltzaileei arta integrala eskaintzen zaielarik berrabiltze funtzional psikologiko eta komunitarioaz (fisioterapia okupazionala, kontrol medikoa, higiene pertsonala ea.) eta familiarrei laguntza psikosoziala.

Egunean bi ordu baino gehiagoko arta pertsonala behar duten pertsonentzat dago orientatua zerbitzu hau.

Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Saretik eskaintzen diren prestazioen Itinerarioan, beharren estaldura-maila diferenteak ikusten dira. Egunezko Arta Zentruak gutxi gora-behera aipatu Itinerarioaren erdialdean aurkitzen dira:

—Zaharretxeak.

—Laguntza telefonikoa: Telealarma, Teleasistentzia.

—Etxez etxeko otordu-zerbitzua.

—Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua: Asistentziala osagarria.

—Estantzia tenporalak egoitzetan.

—Egunezko Arta Zentruak.

Itinerario honen hurrengo urratsak intentsitate handiko arta eskaintzen duten hurrengoak izanik:

—Familia atosleak.

—Piso babestuak.

—Egoitza mistoak. (Arta jarraia duten gizarte-zentruak)

—Zentru asistituak. (Arta intentsiboa duten gizarte-zentruak).

2. Helburuak.

2.1. Helburu orokorrak.

Nolabaiteko ezgaitasun fisiko, psikiko edota soziala duten adineko pertsonen arta integrala eskaintzea, bere berrabiltze funtzional eta sozialerako tratamendu egokiaz inguru sozio-familiarrean iraun dezan.

Behar espezifikoek erantzunak emateko familiaren laguntzarako baliabideen eskaintza anpliatzea.

2.2. Helburu espezifikoak.

Erabiltzailearentzat:

Bere potentzialitateen arabera bere independentzia pertsonalaren mailarik handiena berreskuratu eta/edo mantentzea.

Harreman eta iharduera gustagarriak garatu ahal izateko marko egokia eskaintzea.

Familiarentzat:

Adineko pertsona ezinduak beren inguruan edukitzeagatik familiei laguntza sozial eta asistentziala eskaintzea.

Gaurko modu eta espazio bitalekin zaharrek familiaren inguruan iraun nahi izateak produzitzen dituen istilu inportanteak prebenitu eta, kasu balitz, soluzionatzea.

Erakunde Publikoentzat:

Pertsona zaharren bizi-kalitatea hobetzea baliabide berri honen bidez.

Zaharren Egoitzetan sarrerak eta zerbitzuen kostua murriztea.

Zaharrak komunitatean integratzen laguntzea.

3. Onuradunak.

3.1. Tipologia.

3.2. Onartzeko betebeharrak.

Tipologia:

—Senideekin bizi diren hirurogei urtetik gorako pertsonak eta eguneroko bizitzan beren aktibitatea mantentzeko zailtasun ertaina edo handia dutenak, bai kausa fisikoak nahiz psikikoak medio.

—Hirurogei urtetik gorako pertsonak, bakarrik edo senideekin bizi direnak nahikoa autonomia onargarria izanik, baina autonomia hau galtzeko arriskuan daudenak, adinez zaharrak direlako, babes sozialik ez dutelako edota gaixotasunagatik.

Bi kasuetan ziurtatu behar da ere 3 unitate baino txikiagoa izango ez den puntuazioa dutela eta ezta 7koa baino handiagoa ere 1990eko otsailaren 14ko Foru Aginduak emandako balorazio-ekalan (Kuntzmann eskala)edo hau ezean Foru Diputazioko Gizartekintzaren Departamenduko zerbitzu medikoek luzatutako gaitasunaren aldeko txostena.

Ez dute plazarik izango hurrengo pertsonak: gaixotasun infekzio-kutsakorrek dituztenek medikuen edota erizaindegiko arta garrantzizkoak behar dituztelako, portaera-trastorno larriak dituztenek, elkarbizitza oztopatzen dutelako edota gainerako erabiltzaileentzat edo zaindariantzat arriskuren bat dutelako.

Onartzeko betebeharrak:

a) 60 urte beteta edukitzea.

b) Azkeneko urtean Pasaiako udalerrian erroldatua egotea.

4. Arta tipologia.

Hurrengo izango da:

- a)Arta pertsonala (elikadura, higiene pertsonala).
- b)Gaitasun sozialak (laborterapia, solas programak).
- c)Asistentzi prebentzioa (mantenimendu gimnasia, programa psiko-geriatrikoak).
- d)Apoio eta tratamendu soziala.
- e)Arta medikoa eta erizaintza, bitarteko propioekin edota bitarteko kontzertatuekin.
- f)Harremanak senideekin eta bolondresekin.

Erabiltzaileari arta zerbitzuak era pertsonalean emango zaizkio, aurrez erabiltzaile bakoitzarentzat arta individual eta integral baten plana eginik, non finkatuko diren Zentroko ekipo profesionalek ebaluatzeko moduko helburuak.

5.Antolamendu eta funtzionamendua.

5.1.Ubikazioa.

5.2.Orduategia.

Ubikazioa:

Ikusirik Pasaiaiko udalerraren konfigurazio berezia eta Eguneko Zentroaren zerbitzuaren barrutietako erabiltzaileen beharrak betetzeko, hona zerekin kontaktzen den:

- 1)Pasaiaiko Zaharren Egoitzan kokatzen den Eguneko Udal Zentroa: 15 plaza ditu.
- 2)Laguntza Etxea zentroa: 10 plaza erabiltzeko Caritas Diocesana-rekin sinatutako Konbenioa.
- 3)Txara Eguneko Zentroa: 5 plaza erabiltzeko Gipuzkoako Foru diputazioarekin sinatutako Konbenioa.

Orduategia:

Zerbitzua urteko egun guztietan emango da, larunbatetan, igandeetan eta jai-egunetan ezik, goizeko 9/9:30etatik arratsaldeko 18/18:00etara. Inoiz ez da gaindituko eguneroko zortzi orduko zerbitzua.

6.Onartzeko prozedura.

Eguneko Zentroaren zerbitzua baliatzeko eskaerak Gizarte Zerbitzuen Udal departamenduak kudeatuko ditu, hemen emango da baliabide hau erabiltzeko behar den informazio guztia eta baita eskaera-eredu normalizatuak ere, eta aipatu Departamenduan aurkeztuko dira eskaturiko dokumentazioarekin.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- 1)Eskaera-inprimakia.
- 2)NAN-aren fotokopia.
- 3)Medikuaren balorazioa (Kuntzmann ezgaitasun egoera).
- 4)Errolda eta elkarbizitzaren ziurtagiria.
- 5)Bizikidetzaren unitatearen sarreraren justifikanteak.

*Soldata, pentsio, lamina, epe finko eta beste edozein ondasunen bidezko sarreraren ziurtagiria.

*Azken errenta-deklarazioaren fotokopia edo bestela Haziendaren ziurtagiria esanez ez daukala egin beharrik.

*Foru Haziendak luzatutako Ondasun ziurtagiria.

*Erabiltzailearen egoera ekonomikoan eragina duten eta deduzitu daitezkeen gastuen justifikantea.

6)Beste edozein dokumentu, Gizarte Zerbitzuen departamenduak egokitzen kontsideratuz gero.

Gizarte Zerbitzuen Departamenduak, kasua eta aurkezturiko dokumentazioa aztertu ondoren, egoera baloratuko du eta baita errekurtsioa bidezkoa litzatekeen ere.

7.Prezio publikoa.

Urtero aztertuko dira eta/ proposatuko Ekitaldi bakoitzari dagozkion prezioak eta dagokion udal-organoak onartu beharko ditu.

Erabiltzaileek zuzenean Eguneko Zentroei abonatuak dizkie zerbitzua prestatzeari dagozkion aportazioak, Gizarte Zerbitzuen Departamenduak luzatutako Onarpen Ebazpenak esango duenaren arabera.

1999rako hau ezartzen da:

*Autonomoek: 3.000 pta. pertsona eta eguneko.

*Menpekoek: 4.400 pta. pertsona eta eguneko.

Aportazioen baremoa:

Hileko kostuaren finantziarioa erabiltzailearen, Diputazioaren eta Udalaren aportazioek osatuko dute.

Erabiltzaileak:

Erabiltzailearen aportazioa ezartzeko orduan kontuan hartuko dira famili unitatearen sarrera neto kontsideratuko diren hurrengoak:

*Lituzketen pentsioak, aparteko pagak barne.

*Familia osatzen dutenek lanaren bidez aportatzen dutena, lana inoren kontura edo nor bere kontura egin.

*Ondasun Higikorren errentak.

*Ondasun Higigaitzen errentak.

*Besteak, nolana hikoak izanik ere.

Hurrengo eran baloratuko dira:

a)Epekako laminak, letrak, ordaindukoak, bonoak eta gainerako errenta finkodun tituluak:

Beren errenbultso-inportez:

b)Errenta aldakorra duten tituluak:

*Burtsan kotizatzen dutenean: Burtsaren azken eguneko kotizazioaren balioaz.

*Burtsan kotizatzen dutenean: Ixkitako azken Balantzearen balio neto kontableaz.

*Ondasun Higigaitzak (lurrak, finkak, edifikazioak ea.).

Beste zerga batzuekiko Administrazioak egiaztatutako balioaz.

Honetarako kontuan izango dira erabiltzaileak edo erabiltzaileari egindako ondare-transmisioak pagu-obligazioa baino bost urte lehenago eta geroago epe barruan.

Ondasunen errendimendu inportea, etxe-bizitza propioa salbu, Pertsona Fisikoen Errentaren Zergak ezarritakoa arauak aplikatzearena baino txikiagoa balitz, balorazioa azken hauen arabera egingo da.

*Familiako ostilamendua ondare-konputotik at geratuko da bere osoan, nola eta bertan balio handiko ondasunik ez dagoen eta errealizazio errazekorik.

Erabiltzailearen aportazioa ezartzeko kriterioak:

a)Eskatzailea bakarrik bizitzea.

—Hileko bere sarrera netoak udal prezio publikoa aplikatzeak ezarritako egonaldi-kostuaren berdinak edo handiagoak balira.

Eskatzaileak abonatu du egonaldi-kostuaren eta Diputazioaren aportazioaren arteko diferentzia, gutxienez gorde beharko delarik indarreango Intsertzioaren Sarrera Minimoaren berdina litzatekeen kantitatea.

—Hileko bere sarrera netoak egonaldi-kostua baino txikiagoak balira, eta ez badu kapitalik eta ezta ondasun higikor nahiz higigaitzik.

Diputazioaren aportazioa deduzitu ondoren, eskatzaileak parte hartuko du egonaldi-kostuan indarreango ISM-ren berdineko kantitatea deduzitu ondoren.

—Hileko bere sarrera netoak egonaldi-kostua baino txikiagoak balira, baina efektiboan edota balore mobiliarioetan dirua balu eta 500.000 pezeta gaindituko balitu.

Eskatzaileak beretzat gordeko du indarreango ISM-ren kantitate baliokidea, baina baliabide horiek egonaldi-kostua abonatzeko erabiliko ditu, Diputazioaren aportazioa deduzitu ondoren.

—Hileko bere sarrera netoak egonaldi-kostua baino txikiagoak balira baina eraikin-jabetzak baditu, bere ohiko etxebizitzaz gainera.

Eskatzaileak beretzat gordeko du indarreango ISM-ren kantitate baliokidea, baina baliabide horiek egonaldi-kostua abonatzeko erabiliko ditu, Diputazioaren aportazioa deduzitu ondoren.

b)Eskatzailea ez da bakarrik bizi:

(Famili Unitatea ulertuko da interesatuak, ezkontideak eta balego, etxe berean bizi diren 18 urtez beheko seme-alabek edo adinez handiak baina bere menpekoek osatua).

Kasu honetan, sarrerak behin guztira emanik, guztia Famili Unitateko partaideen kopuruaren artean zatituko da egoiliarri dagokion urteko inportea lortzeko.Hilabetekoari dagokiona lortzeko zati 14 egingo da. Etxean geratuko den ezkontideari, honi ISM-ren %75en baliokidea den kantitatea erreserbatuko zaio.

c)Egoiliarren aportazioa edota, kasu balitz, senideena inoiz ez da izango plazaren kostu bezala ezarritako kantitatea baino handiagoa.

d)Gastuen dedukziotarako kontuan hartuko dira:

—Etxez Etxeko Udal Zerbitzua prestatzeak sorturikoak.

—Etxebizitzaren alojeraren, hipotekaren eta etxebizitzako konponketak (teilatua, fatxada ea.)egiteko eskatutako kredituen gastuei dagozkienak.

Erakundeen aldetik:

—Diputazioa:

Urtero ezarriko diren kantitateak abonatu dira ondorengo aportazio bezala: Gai den pertsonako, pertsona elbarrituko, Ongizate Sozian onuradun izan eta gai den pertsonako eta Ongizate Sozian onuradun izan eta gai ez den pertsonako.

Aportazio hau deduzitu egingo da, kasu guztietan, onartutako udal prezio publikotik.

—Udala

Honi dagokio ordaintzea estipulaturiko plaza-kostuaren eta Diputazioak aportatu duenaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko diferentzia.

Xedapen adizionala.

Bakarra. Gizarte Zerbitzuen Departamenduak, zinegotzi delegatuaren bidez, bere gain hartzen du Zerbitzu honekin erlazionatuta egon eta Plegu honetan espreski jasotzen ez diren arazoak erabakitze ahalmena.